

# IKASGELA BERRITZAILEAK USURBILGO LANBIDE ESKOLAN

*Ikasgeletako espazioen antolaketa berria egiten ari dira Usurbilgo Lanbide Eskolan, metodologia aktiboak lantzeko, eta ikasleek leku aproposagoak izan ditzaten zuzeneko zein zeharkako gaitasunak barneratzeko. Halaber, Usurbilgo Lanbide Eskolak mundura zabaltzen jarraitzen du.*

**O**hiko ikasgela, ikasleak arbelari begira, bakarkako mahai eta aulki finkoekin, eta protagonismo guztia irakasleari ematen diona ez da egokia Ethazi metodologia (Etekin handiko zikloak) behar bezala garatzeko. Ethazi metodologiaren arabera, ikaslea da bere ikasprozesuaren protagonista, eta, horretarako, beharrezkoa da ikasgeletan leku aproposak egotea bakarkako ikerketa, talde lana, aurkezpenak eta elkarrizketak egiteko.

Usurbilgo Lanbide Eskolak ikasgelen egokitzapen prozesuari ekin dio, ikasgelak modu egokian berrantolatzeko. Esaterako, Administrazioa espezialitateko ikasgeletan, eremu dinamikoagoak sortu dituzte. Gela koloretsuagoak dira orain, atseginagoak. Kristalezko arbel bat ipini dute, eta erraz bildu zein bereiz daitezkeen mahaiak jarri dituzte, bakarka zein taldeka aritzeko baliagarriak direnak.

A-111 ikasgela da horren guztiaren adibide garbia. Guztiz eroso den leku bat sortu dute, gizar-tearen eta enpresen eskakizunei erantzuteko prest egongo diren profesionalak trebatzeko.

## GIRO EGOKIA

Ikasketak egiteko giro egokia izatea oso garrantzitsua da, ikasleek baliabideak lor ditzaten beren hezkuntza xedeak bete ahal izateko jarduerak ongi egiteko. Egiaztatua dago inguru aproposak sormena sustatzen duela, ikaslea akuilatu egiten duela, burua lasaitzen duela, eta, ondorioz, hobeto lan egiten dela. Gainera, lasaitzeko toki batzuk izanez gero, ikasleek behar dituzten atsedenaldiak egin ditzakete garunak hobeto lan egiten dezan.

Hori kontuan izanik, D-102 ikasgela moldatzea erabaki dute,



Metodologia aktiboak lantzeko egokitu dituzten D-102 ta A-111 ikasgelak. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

PBL metodologia (*Project Based Learning*, Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza) hobeto garatzeko, metodologia horrekin bi urtean lan egin ondoren. Horretarako, D-101 eta D-102 gelen arteko paretak botatzea erabaki dute, lankidetzan oinarritutako lan espazio bat sortzeko eta argitasun handiagoa izateko. Ikasgela margotu eta atsedeneleku bat sortu dute, kafe makina batekin, hozkailu txiki batekin eta sofa txiki batekin. Gainera, paretak batean baso baten horma pintura bat jarri da, toki hori sormena suspertzeko egokia izateko, eta lasaigarria, aldi berean. Aurrera begira, sabaia jaitea pentsatu dute, akustika eta ikusgaitasuna hobetzeko, eta argiztapena led bidez egitea, energian gutxiago gastatzeko.

Ikasleek arteko komunikazioa –ahozkoa eta idatzizkoa– hobea izateko, talde lanean aritu ahal izateko mahaiak erabiltzen dituzte, eta behar den malgutasuna eskaintzeko toki horretan prestakuntza jarduerak egiteko, erronkei buruzko azalpenak emateko, eta ikasle taldeen bilerak eta ebaluazioak egiteko, besteak beste. Telebista bat eta kristalezko arbel bat ere ipini dituzte, azalpenak emateko lagungarriak izan daitezkeen.

Era berean, ikasleek ebaluazioak egiteko, eta bilerak egiteko eta lasaitzeko toki bat eratzeko, atzerri irristakorrek dituen beirate bat ipini dute. Horrela, toki horrek eginkizun horiek egiteko behar den pribatasuna du, eta, bestalde, atzerri irristakorrek zabaldu ahal izango dira ikasge-

lan prestakuntza jarduerak eta aurkezpenak egiteko.

Azkenik, lankidetzak sustatzeko, ikasleari egiten ari den heziketa zikloaren inguruko gai buruzko informazioa emateko, eta gorantz ari den 4.0 industria ezaugarritzeko –laugarren industria iraultza–, binilo batzuk jarriko dituzte beiratean eta ikasgelako paretetan.

## MUNDURA ZABALTZEN

Usurbilgo Lanbide Eskola mundura zabaltzen ari da etengabe. Urte batzuk dira goi mailako zikloetako ikasleei atzerrian praktikak egiteko aukerak eskaintzen dizkiela, Erasmus+ programaren barruan, baina nazioartekotzeko ahalegina haratago doa.

Iaz hainbat irteera egin zituzten Europara. Alde batetik, Oier

Aranzabal Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariordea Alemaniako Waden Wutenberg eskualdean egon zen, Tknika ikastegiaren eskutik, Europako zenbait eskolaren arteko harremanak lantzen. Ondoren, Oier Aranzabal eta Imanol Gabellanes Usurbilgo Lanbide Eskolako Internazionalizazio arduraduna Suediara eta Ipar Irlandara joan ziren, hango eskolak ezagutzera. Bisita horien helburuak hauek dira:

- Goi mailako zikloetako ikasleentzako atzerriko praktikak zuzenean enprekin lotzea.
- Ikasleei etorkizunean beste praktika batzuk eskaintzea. Esaterako, erdi mailako zikloetako ikasleak Erasmus+ programan sartzea eta praktika garaiaren aurretik eskoletan aste pare bateko egonaldiak antolatzea, baita irakasleentzako trukeak egitea ere.
- Hurrengo urteetan, Europako garapen proiektuetan (KA2) parte hartzeko bazkideak aurkitzea. Usurbilgo Lanbide Eskola dagoneko KA2 gisako proiektu batean parte hartzen ari da. Proiektu horren izena *Blend4vet* da, eta Belfast Met eskolak gidatzen du, Dublin, Herbehereetako eta Estoniako partaideekin batera.

Horrez gain, Usurbilgo Lanbide Eskolako ordezkariak azaroaren 21a eta 23a artean Ipar Irlandan izan dira, Kick Off proiektuko hasiera batzarrean. Proiektu horrek urte eta erdi iraungo du, eta *Blended Learning* prestakuntza lantzeko dute. IKTak heziketa programetan erabiliz, eguzki energia termikoari buruzko ikastaro bat egingo dute Internet bidez –informazio gehiago, #blend4vet Twitter hashtag-ean–.

Etorkizunean, nazioartean egiten ari diren kontaktuak erabiliz eta Zubigune fundazioaren laguntzarekin, Europako proiektu gehiagotan parte hartzeko asmoa du Usurbilgo Lanbide Eskolak, eta, agian, proiektu bateko liderra izateko.

Bestalde, Adegik elkartearen eskutik Mekanizatuko Goi Mailako truke proiektu batean murgilduta dago Usurbilgo Lanbide Eskola. Aurten, ikasle talde bat, Dual sisteman parte hartuko duena, ingeleza eta oinarritzko alemana landuta, Alemaniako hainbat enpresatan arituko da. Beraz, Dual sisteman parte hartuko duena, ingeleza eta oinarritzko alemana landuta, Alemaniako hainbat enpresatan arituko da. Beraz, Dual sisteman parte hartuko duena, ingeleza eta oinarritzko alemana landuta, Alemaniako hainbat enpresatan arituko da.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: [www.lhusurbil.eu](http://www.lhusurbil.eu)